

Frankismoko sei torturaturen salaketak aurkeztu dituzte Tolosan

Jesus Muñecas kapitainak 1975ean eta 1976ean egindako torturen testigantzak helarazi dituzte Tolosako epaitegira, krimen berak, 2014an, Argentinan salatu eta gero; ordezkaritza politikoaren nahiz herritarren babes zabala jaso dute sei biktimek, epaitegi atarian // 3



Nosellas, Sarasola, Goñi, Zabaleta, Begiristain eta Arangoari egindako torturen testigantzak aurkeztu dituzte epaitegian, txosten batean. ASIER IMAZ

Sagardoak eta kultur sorkuntzek bat egingo dute Aiztondon

Astarbe sagardotegiak SagarArte proiektua ondu du; mitologia, kultura, artea eta sagardoa elkarrekin gozatu ahal izango dira // 5

Kirolaren balioen alde eta lehiakortasunaren aurka, Haka dantza egingo dute Tolosan

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosako Udalak eta Eskola Kirola komunitateak elkarlanean antolatu dute hitzordua; Go!azeneko zenbait aktorek eta kirolariek parte hartuko dute // 7

Komisaldegi eta epaitegiako garbitzaileek soldata arrakala salatu dute

ELA sindikatuak deituta, manifestazioa egin zuten, atzo, Tolosan; irailean ekin zioten grebari eta, oraindik, ez dute negoziatziorik abiarazi Segurtasun Sailarekin eta Garbialdi enpresarekin // 2

Garbiketa sektoreko soldatak berdintzea aldarrikatu dute

Komisaldegia eta eraikin judizialtako garbikuntza langileek manifestazioa egin zuten, atzo, justizia eskatuz. 120 egun igaro dira, greban hasi zirenetik



Tolosako epaitegitik hasi, eta komisaldegirainoko bidea egin zuten langileek. J.A.

Josu Artutxa

Epaitegiko eta komisaldegiko garbitzaileek mobilizazioa egin zuten, atzo, Tolosan, ELA sindikatuak deituta. Tolosako epaitegian egin zuten elkarretaratzea eta, gero, komisaldegiraino joan ziren. Langileen eskubideen aldeko oihuak eta negoziaketei konponbidea emateko aldarriak egin zituzten.

Langileek diotenez, «administrazioaren azpikontratak dira, hiru sektoreak: kale-garbitzaileena, eraikin judizialtakoena eta komisaldegietakoena». Desberdintasuna, baina, langileen generoan dago. «Kale-garbikuntzan %80 gi-

zonezkoak dira eta, beste bietan, %95 emakumezkoak». Hori dela eta, soldata arrakala ezaba dadin eskatu zuten. «Eraikin judizialtako langileekiko %7koa da aldea eta, komisaldegietako langileekiko, %13koa».

Langileen arabera, «legeak aukera ematen die, erakunde publikoei, berdintasunaren aldeko diskurtsoa praktikan jartzeko». Gainera, diote, neurri horiek jasotzeko legearen babesa dutela, argitaratuko diren baldintza-orriek. Irailaren 19an hasi zuten greba, eta negoziatzorik ez dute hasi, oraindik. Mobilizazio horien bidez, «Segurtasun Saila eta Garbialdi enpresa inplikatzeko» eskatu dute.

Egoitzen auzian esku hartzeko eskatu die, LABek, BBNNei

Sindikatuak Gipuzkoako adinekoen egoitzetako zerbitzua aitortzea nahi du; balizko hitzarmen bat erregistratu dute, batzar nagusietako egoitzan

J. Artutxa

Bi urte baino gehiago dira, Gipuzkoako adinekoen egoitzetako mahai negoziatzailea osatu zutenetik. Oraindik «proposamen seriorik gabe» daudela azaldu dute. Zerbitzuak kontziliazioa errespetatzea, langileen egonkortasuna bermatzea, eta herritarren osasuna prebentzio neurrien bitartez ziurtatzea nahi dutela azaldu dute sindikatuko langileek.

Urriaren 26an, patronalek proposamena aurkeztu zieten, baina ez zuten nahikotzat jo. «Soldatetan bi urteko izoztea, gure aldarrikapenetatik urrun gertatzen zen proposamena zen». Gero, kolektiboki erantzun zuten, zentroetan eta kalean, mobilizazio eta greba deialdiekin.

Patronalek abenduaren 11rako beren proposamena birplanteatuko zutela agindu zieten, baina ez zen horrelakorik gertatu, antza. «LAB sindikatutik patronalen jarrera salatu genuen, eta ordezkartzaren gehiengo duen

sindikatuari ere aipamena egin genion, ez zelako bilerara etorri, negoziazioak blokeatuz. Hilabete geroago mahai negoziatzailea biltzeko deialdi berri bat egin genuen, baina, gure harri durarako, bertan behera geratu zen».

LAB sindikatuak salatu nahi du, egoera hori inposatu egiten dietela: «Foru aldundiak, oraindik herrialdeko hitzarmenik onartu ez digulako; patronalek, zerbitzua merkantilizatzen dutelako eta, ELA sindikatuak, negoziaketei eta sindikatuoi errespetu falta erakutsi digulako». Izan ere, ELA sindikatuak, behin eta berri, errepikatu die ez dela esertzeko unea. «Aldi berean, jakin badakigu, modu ezkutuan patronalekin negoziatzen ari direla».

LABek bilera eskaera egin die batzar nagusietako hainbat talderi. «Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu diogu, dagozkion ardurak har ditzala, eta eman ditzala eman beharreko pausoak, herrialdeko hitzarmena egon dadin».



Sindikatuak ordezkariak Ordiziako plazan egindako elkarretaratzean. ATARIA

Hiru eguneko greba hasi dute Tolosako Herrikide ikastetxean

J. Artutxa

Kristau Eskolako zuzendaritza batzordeak deituta, langileak mobilizaziotan dabilta egunotan, hitzarmen berri baten alde, eta negoziatzorako eskaera aldarrikatuz. Sindikatuak zortzi eskola eguneko deialdia egin zuten kristau eskoletarako, langileen baldintzak hobetzeko eskatuz, baina, Herrikide ikastetxean, hiru egunean egitea bozkatu zuten, irakasleen %30ak. Hortaz, atzo hasi eta ostiralera bitarte, greba egingo dute Tolosan.

Pello Agirrezabala Herrikide kristau eskolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zuzendaria da eta, ATARIA IRRATIA-n aurreratu zuen, «gatazka baten aurrean zeudela». Gainera, ikasleekin gatazken kudeaketan lantzen dutenez, «egoera ikasgai horietatik kudeatzea» eskatu zuen. «Gauza positiboak atera behar dira, jakinda, gatazka giza kiaren DNAn dagoela. Egoera hobetzeko abiapuntu bat izan behar du».

Zuzendariaren ustez, «hainbat eskubide daude eta, une honetan, talka egiten dute. Alde guztiak zaintzen saiatu beharra daukagu». Gerta daitekeen txarrena lan gatazka arlo pertsonalera eramatea dela dio, haustura bat sortuz. «Nire lana da, ikastetxeko langileak eta familiak zaintzea. Laguntza izugarria izaten ari naiz zuzendaritza taldetik eta lankideen artetik».

ELA, Steilas, CCOO, LAB eta UGT sindikatuak langileen eskariei, lau ardatz dituzte: soldatak; lan zama; haur hezitzaileen eta hezkuntza laguntzako espezialisten egoera; eta enpleguari eustea. Batetik, erosketa ahalmena %10 galdu dutela ohartarazi dute. Bestetik, eskolak prestatzeko eta ikasleen jarrera egiteko ordu nahikoa izatea ere eskatu dute. Gainera, espezialisten lana irakaskuntza gisa hartzea, eta ordu osagarriak izatea ere aldarrikatu dute. Azkenik, inoiz ikastetxeak itxiko balituzte, langileak beste nonbait kokatzeko aukera nahi dute. Eskari horiekin lotutako proposamen batzuk egin dizkiete langileei, ordu osagarriekin lotutakoak, adibidez, baina, sindikatuaren ustez, «urrats txikiak dira».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Kamioi gidaria. Kamioi gidaria behar dugu, C+E gidabaimenak eta CAP-arekin. Informazio gehiagorako deitu 627197524 telefono zenbakira.



Tolosako epaitegiaren aurrean elkarretaratzea egin zuten, atzo goizean, biktimei babesa adierazteko. ASIER IMAZ

Tortura salaketak aurkeztu dituzte Muñecas-en biktimek

Tolosako epaitegian aurkeztu zituzten salaketak, sei lagunek, atzo goizean; aurretik elkarretaratzea egin zuten, eta hainbat erakunderen babesa jaso zuten

Irati Saizar Artola

Tolosako epaitegian bildu ziren, atzo eguerdian, Elixabete Nosenllas, Jokin Sarasola, Juan Goñi, Martin Jose Zabaleta, Jose Begiristain eta Juan Arangoa Amparo Arangoaren anaia. Salaketak aurkeztu eta epailearen esku utzi zituzten testigantzak, 1975 eta 1976. urteetan Jesus Muñecas Aguilar kapitainak eta beste guardia zibil batzuek egindako krimenenak.

Aurretik egindako elkarretaratzean, babes zabala azaldu zieten, erakundeetatik, sei biktimei. Besteak beste, Tolosako udalbatzako EAJ, PSOE-EE eta EH Bildu bertan izan ziren, eta baita Tolosako Podemos ere. Halaber, bertan izan ziren EH Bilduko aldundiko ordezkariak eta Marian Beitialarrangoitia diputatua ere.

Krimen horiek 2014an salatu zituzten, Servini epaile argentinararen aurrean, baina, Frankismoaren Krimenen Aurkako

Elkarteak Euskal Herrian ere salatzea nahi zuen. Josu Ibargutxi Elkarteko lehendakariak azaldu duenez, «hemengo epaitegietan ere salatzea proposatu genien, zeren, epaitegi horiek egin behar dute justizia».

Gauza bera egingo duten biktime gehiago ere badirela argitu du Ibargutxi: «Torturatuak izan ziren tokietan, Donostiako, Bergarako eta Azpeitiko epaitegietan egingo dute». Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere badute kasu horri buruzko ebazpen bat, eta alderdi guztiek bat egin dute, PPK izan ezik.

HURRENGO URRATSAK

Behin salaketa aurkeztuta, epailearen erantzunaren zain geratu izan dira. Orain arte, horrelako kasu guztiak «bertan behera» geratu direla azaldu du Ibargutxi, «betiko argudioengatik». Ibargutxiren esanetan, «preskribatutako delituak direla, eta amnistia-aren legea dagoela esaten dute». Ibargutxi argi du, ordea, gizate-

riaren aurkako krimenak «preskribaezinak» direla: «Eta tortura hauek guztiak hala dira».

Kasu horiek aurrera eramaten dituzten epaileek «sekulako presioa» jasaten dutela nabarmendu du. Duela hamar bat egun, lehen aldiz, Valentziako epaile batek onartu egin zituen torturatutako kide batzuen salaketak, eta «behingoz» diligentsiak ireki zituzten. «Hori da bidea, sasi-demokrazia honekin sinesten hasteko. Hemengo epaitegiek frankismo garaian gertatutako guztia behingoz beren esku hartzea nahi dugu, inpunitatearekin amaitzeko».

Epaileak salaketa onartzen ez badu, beste epaile batzuegana jo beharko dute. «Kasurik onenean, seiei deituko die, eta Muñecas kapitainari ere deitu beharko dio, gutxienez, galderak egiteko. Gero, ikusi egin behar epaileak egiazkotasuna ematen dion; inputatutik akusatura pasatzen badu, berak erabakiko du, kartzelatu edo kalean utzi».

BILLY EL NIÑORI KONDEKORAZIORIK EZ DIOTE KENDUKO

Espainiako Gobernuak hainbat torturatzaile kondekoratu eta saritu zituen frankismo garaian. Horieta-ko bat da Antonio Gonzalez Pacheco, Billy el Niño ezizenez ezaguna. Marian Beitialarrangoitia Espainiako diputatuaren kongresuko EH Bil- duren ordezkariak kongresuan gal- detu zuen, ea gobernuak kondeko- razio hori kentzeko asmorik ba ote zuen. Atzo goizean jaso zuen erant- zuna: «Billy el Niño-ri ez diote kondekorazioa kenduko, gaur egun, legediak ez duelako ahalbidetzen». Diputatuaren ustez, «gobernuak ez du borondaterik ezer egiteko; PSOE-k hitzetan badu frankismoko biktimekiko begirunea, baina ekin- tzetan ez da hori ikusten».

Gobernuaren jarrera «agerian» uzten jarraituko dutela azaldu du, bestelako jokabide bat izan deza- tela eskatuz.

Aitzolen familiak krimen frankistak salatuko ditu

Gipuzkoako Foru Aldundiak bide judizialari ekingo dio, 1936 inguruan izandako krimen frankistak jazartzeko

Erredakzioa

1936an frankistek hildako Flo- rencia Olazagoitia eta Jose Ariz- timuño Aitzolen senideek sala- keta aurkeztuko dute, laster, Do- nostiako Instrukzio Epaitegian, eta foru erakundea herri akusa- zio gisa aurkeztuko da. Bi kasu horiek, frankismoko biktime guztiak ordezkatzeko dituzte.

«Auzi estrategiko» bat abiara- ziz gauzatuko du, foru erakunde- ak, bere akusazioa. Helburu na- gusi bat du: Espainiako auzite- gietan eta jurisprudentzian eragitea. Markel Olano ahal- dun nagusiaren esanetan, «egia judi- zialaren argitan, frankismoaren krimenen aurreko inpunitate horman arrakala berriak ireki- tzen laguntzea da helburua».

Egitasmo hori bi txostenek sostengatu dute. Batetik, Aran- zadi Zientzia Elkartek, 1936 eta 1944 urteen artean erail eta desa- gertutako gipuzkoarren kasuak bildu ditu; bigarren txostena UNESCOk egin du. Horren ara- bera, badira nahiko legezko bide eta argudio, aldundiak gerra ga- raian eta ondoren egindako deli- tuak jazar ditzan.

<<ZURIK>> EZIN ITXI

Egitasmoaren aurkezpenean izan ziren Aitzolen eta Olazagoi- tiaren bi senide, foru gobernu- ko ordezkariekin, eta txosten juridi- koa egin duten adituekin batera. Aitzol apaiza eta euskaltzalea atxilotu, torturatu eta fusilatu egin zuten tropa frankistek. Se- nideek ez dakite haren gorpua non dagoen. «Herri honen zau- riak ez dira itxiko, familiekin euren hildakoak biltzen jarraitu behar duten bitartean», esan zuen Coro Arrue Aitzolen ilobak. Olazagoi- tia alderdi sozialistako kide zen, eta 37 urte zituen desagertu ze- nean. Porrot egin dute hura aur- kitzeko ahalegin guztiek. «82 urte hauetako oinaze eta zauriak itxi eta isiltasunetik ateratzeko, beharrezkoa da biktimen egia ezagutzea; orain arte, garaileen egia soilik ezagutarazi da», sala- tu zuen Nati Roa bilobak.

Anoetako Mintzalagun egitasmoan parte hartzeko aukera dago

Mintza taldeak ere sortu nahi dituzte; Gurasolagun izenarekin, haur eta helduek elkarrekin euskaraz aritu ahal izateko

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Udalak urte berriarekin batera badu asmo berria: «Herriarrak euskalduntzen eta alfabetatzen jarraitzea, eta herrian euskararen erabilera bultzatzea».

Hizkuntza ohiturak aldatzea norbere hautua eta ariketa bada ere, bidea taldean egitea «eroso-agoa» dela esan du Anoetako Udalak. Horregatik, Anoetako Mintzalaguna egitasmoan parte hartzera gonbidatu dituzte herriarrak. «Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo, euskalduna izanda, euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat». Denbora libre, adin eta zaletasunen arabera, 5-6 laguneko taldeetan biltzeko proposamena egin dute, eta familientzat mintza taldeak ere sortu nahi dituzte, Gurasolagun izenarekin: helduek eta haurrek elkarrekin egiteko jolasak, txangoak eta tailerrak prestatu dituzte eta, oro har, Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen dutenentzat ere egingo dituzte jarduera osagarriak, besteak beste, txangoak, tailerrak eta mintzodromoak.

Egitasmoaren inguruko informazio guztia www.mintzalagun.blogspot.com helbidean, edo andoain@ae.eus posta elektronikoa izango dute interesatuek. Baita 943 65 12 00 edo 662 132 558 telefonoetan ere.

Aurtengo Euskal Jaiaren gaia aukeratzeko bilera

ANOETA // Gaur, urtarilaren 17an, osteguna, 18:00etan bilduko dira udaletxean, udazkenean ospatuko den Euskal Jaian landuko duten gaia aukeratzeko. Euskal Jai batzordean biltzen diren herriarrek, urte osoko lan-keta abiatuko dute, gai horren inguruan. Iaz, esate baterako, ahoz-kotasuna hartu zuten ardatz, eta gai horren inguruan prestatu zituzten, urriaren 14an ospatutako Euskal Jai eguneko ekitaldiak.

Bihar, gaztetxean aurkeztuko dute, 'Pitzatu' izeneko lana

ANOETA // *Pitzatu, Gazte Boterez Euskal Herria eraikitzen* Ernai eta Ipesen artean ekoiztutako hausnarketa, eztabaida eta ekin-biderako gonbita bat da. Anoetako Ernaik lan horren aurkezpena antolatu du, urtarilaren 18an, ostirala, 18:30ean, Anoetako Gaztetxean. «Irakurria eta eztabaidatua izateko jaio da liburu hau, eta baita ekintzarako bide izateko ere, Gazte Boterea indartzeko bide», esan dute argitalpenaren sustatzaileek.

Scrap tailerra egingo dute, helduentzat, Zizurkilan

ZIZURKIL // Hiruhileko ikastaro berria antolatu du Zizurkilgo Udalak. Tailerra helduentzako ikastaro berezia izango da, eta astearteetan eskainiko dituzte saioak, 18:00etatik 19:30era. Izen emateak Zizurkilgo udal bulegoetan egin beharko dira, eta 50 euro ordaindu beharko dira horretarako. Scrap ikastaro eskolak Atxulondo kultur etxean eskainiko dituzte, datoren hiru hilabeteetan.



EUSKARA IKASTEKO TALDE BERRIA

Anoetan euskara ikastaro berri bat hasi dute urtarilean. Oinarri-oinarrizko maila duen ikastaroa izango da. 12 ikasle hasiko dira taldean, hainbat jatorritakoak: sahararrak, marokorak, sevilarrak, brasildarrak, berberek, ekuadortarrak eta nepaldarrak. Urtariletik ekainera bitarte ariko dira, oinarritzko euskara ikasten. Astelehen eta asteazkenetan, 15:00etatik 17:00etara, udal liburutegiko ikasketan gelan biltzen dira. ATARIA

Klika 21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

Korrika batzordeak sortzen hasi dira, herriz herri

Eskualde osoko koordinazioa eramango du Tolosaldeko batzordeak; lehen bilera egin zuten, joan den asteartean, Anoetan

Erredakzioa Anoeta

Apirilaren 4tik 14ra, Garestik Gasteizera, Euskal Herri osoa zeharkatuko duen 21. Korrikaren harira, eskualdeko ordezkariak Tolosaldeko lehen batzordea egin zuten, asteartean, Anoetan. «Herrien arteko lehen hartu emana izan zen», esan du Aritz Peñagarikano Tolosaldeko Korrikaren koordinatzaileak. «Ibilbidearen non dik norakoak aipatzeaz gain, batez ere, euskararen aldeko lasterketa hauspotzeko egin litezkeen hainbat egitasmoen berri eman zuten bileran».

Datozen egunetan, herriko ordezkariak tokian tokiko udal zein eragileengana joko dute, eta herriko batzordeak eratuko dituzte, Peñagarikanoren esanetan, «kilometro banaketari, Korrika Kulturalari eta beste zenbait egitegori erantzuteko».

BATZORDEAK HERRIZ HERRI

Korrikaren helburuak bete daitezkeen, guztien ekarpena eta ahalegina beharrezkoak dira. «Denon parte hartzeaz lortuko dugu Euskal Herri euskalduna, eta guztion esku eta oinei esker eraman ahal izango dugu, euskararen le-



Tolosaldeko lehenengo Korrika batzordea egin zuten asteartean. ATARIA

kukoa, Garestik Gasteizera». Ahalegin horretan, herritarren laguntza «estimagarria» izango dutelakoan dago Tolosaldeko Korrikaren koordinatzailea.

Horretarako bideetako bat, herriz herri antolatuko dituzten Korrika batzordeetan parte hartzea izango da. Datorren asteartean, urtarilak 22, Tolosaldeko batzordeak lehen bilera egingo du, kultur etxean; urtarilaren 24an, berriz, Zizurkilgoak. Tolosaldeko Korrika batzordeak urtarilaren 29an egingo du bigarren bilera, Anoetako udaletxean.

KORRIKA BATZORDEAK

Urtarilak 22, asteartea

19:00. Tolosaldeko Korrika batzordearen lehen bilera, Tolosaldeko kultur etxean.

Urtarilak 24, osteguna

18:30. Zizurkilgo Korrika batzordearen bilera egingo dute Atxulondo kultur etxean.

Urtarilak 29, asteartea

Ordua zehazteko. Tolosaldeko Korrika batzordearen bigarren bilera egingo dute, Anoetako udaletxean.



zozketak

**Atarikideentzat
bi sarrera ditugu**

**ATARIA bertso
jaialdiarako
bi sarrera zozketan**

Urtarilak 19, larubata
19:00 • Tolosa, Leidor.

Ataria bertso jaialdia
2019
Urtarilak 19, larubata, 19:00etan
Tolosako Leidor antzokian



Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus

Jon Miranda Zizurkil

Iazko ekaina hasieran, 455. urteurrenaren harira, arte galeria jarri zuen martxan, Astigarragako Astarbe sagardotegiak. Hitzordu hartarako, munduko hainbat kulturatako mitologiaren sagarrak izan duen garrantzia kontatuz, 11 ilustrazioz osatutako bilduma ondu zuen, Paul Lataburu Donostiako artista gazteak. Irailetik hona, Mundaka Basque Country arropa dendan egon dira lan horiek ikusgai eta, bihartik aurrera, Aiztondoko Plazida Otaño liburutegian ikusi ahal izango dira, Zizurkilen. *Sagardoaren kondaira* izena jarri diote eta, bihar, 19:00etan izango da inaugurazio ekitaldia.

Egitasmoa ez da hutsetik sortu. Astarbe sagardotegia Astigarragako Mendiola baserrian dago, eta historia luzekoa da. Lourdes Odriozola historialariak egindako ikerketa batek aditzera ematen duenez, XVI. mendetik hona familia berak kudeatu du baserria, 15 belau-nalditan. Sagardotegiaren 450. urteurrenaren harira, produktu berriak plazaratu eta irudi berria lantzen hasi ziren, eta iaz diseinatu zuten, 2022. urtera bitarteko plan estrategikoa. Astarbek berezkoak dituen elementuak landuko dituzte aurrerantzean: ikerketa historikoarekin jarraitu, familiakoak diren Astarbe eta Mendiola sagar barietateak aldatu, eta sagardotegiaren kontzeptu berria lantzeko urratsak emango dituzte. Baina, batez ere, sagardotegiek zuten «kultur protagonismoa» berreskuratu nahi dute. Horrela azaldu du Gorka Arizkorretak, Astarbeko SagarArte proiektuko koordinatzaileak.

XIX. mendetik aurrera, gutxienez, sagardotegiak inguruko kultur adierazpideen atari zirela uste dute Astarbeko arduradunek: «Upel artean, bertsolariak euren koplak abesten zituzten, txistulari zein trikitilariak giroa alaitzen zuten, eta toka zein beste makina bat jokotan aritzen ziren. Testuinguru ezegonkorretan ere, gure herriaren identitatearen ezaugarrien babesleku izan ziren, zenbait lexiko, esaera zein usadio gaur egunera arte mantenduz». XXI. mendeko gizarte eraldaketatik, bi elementu horien arteko erlazioa «urrundu» egin dela uste du Arizkorretak: «Kultur adierazpideak ez dira sagardotegietan ikusten, eta sagardo mundua oso



Iñaki Villanuevak sagarrondo batekin egindako eskultura ikusgai dago, Astarbe sagardotegian. ATARIA

Sagardoa eta arte mundua lotzen dituen erakusketa

Astigarragako Astarbe sagardotegiak sustatutako SagarArte galeria ibiltaria Aiztondoko Plazida Otaño liburutegiko erakusketa gelara iritsiko da bihar

urrun dago, kultur adierazpide horiek pentsatu, ekoiztu eta kontsumitzen diren espazioetatik».

Horregatik, kultur adierazpideen eta sagardo munduaren arteko «zubi lanak» egiteko sortu dute SagarArte galeria. «Artista gazteei sostengua eman nahi diegu euren ibilbide profesionalean, eta euskal kulturaren elementuak inspirazio iturri moduan erabiltzera bultzatu nahi ditugu». Helburu gehiago ere zerrendatu ditu Arizkorretak: «Adierazpide kultural gutxituen aterpe izan nahi dugu, eta sinergiak sortu, artista gazte horien ekoizpenak hartzeko prest dauden espazioen sarea sortuz, betiere, gastronomia motor bultzatzailatzat hartuz». Arropa denda batean, aurrena; kultura zuzenean lantzen duen Zizurkilgo espazioan hurrena; eta, apiriletik maiatza

bitarte, kulturaren bueltan kezka antzekoak dituzten ostalari-tza negozioetara eraman nahi dute, erakusketa ibiltaria.

Gastronomia eta artea

Sagardotegiak dituen irabazien zati bat arte ekoizpenera eta ekoizpen horien promoziora bideratzen dute. Esate baterako, Anna Roca kataluniarrak, ohol baten gainean 2017an egindako ikatz-marrazkia ikus daiteke sagardotegian. Balea da protagonista obra horretan, agiri batek esaten dioenez, Mendiolako familiak Ternuako balearen arrantzarekin zerikusia izan zuelako, XVI. mendean. Bestalde, 2017an, baserriko sagastitik ateratako sagarrondo batekin eskultura egin zuen Iñaki Villanuevak, eta hura ere ikusgai jarri dute upel artean.

Iazko ekainean, SagarArte galeria zabaltzeko, Sagarberri

jaialdia antolatu zuten, Astarbe sagardotegian bertan. Beste arte adierazpide batzuk ere lekua izan zuten ekitaldian: Anna Rocak *Sagardoaren Be-launaldiak* ikatz zirizko inpro-

«Sagardotegiek izan duten kultur protagonismoa berreskuratu nahi dugu ekimenarekin»

GORKA ARIZKORRETA
SAGARARTEKO KOORDINATZAILEA

bisazioa egin zuen eta, Aitor Zarzuelok, *Idunn* film laburra eskaini zuen. Izaro musikariak ere emanaldia eskaini zuen, eta bertan aurkeztu zuen, Paul Lataburuk, *Sagarra-Manzana* ilustrazio seriea; bihartik aurrera Zizurkilen ikusi ahal izango den *Sagardoaren kondairaren* ardatza.

Plazida Otaño liburutegiko

KATA MARIDATUAK

Urtarrilak 18, bihar

19:00. *Hasiera berribat.* Astarbe sagardotegiak sustatutako erakusketa-aren inaugurazioa.

Otsailak 22, ostirala

19:00. *Olimpotik Valhalara* Atxulondotabernan.

Martxoak 1, ostirala

19:00. *Itsasontzi baten...* Egarritabernan.

Martxoak 29, ostirala

19:00. *Gure sagardotegiak* Pasustabernan.

erakusketa gelan, martxoaren 29ra bitarte egongo da ikusgai, ilustrazioak biltzen dituen erakusketa eta, tarte horretan, kata maridatu gidatuak eskainiko dituzte, inguruko tabernetan, sagardoa, gastronomia eta artea uztartuz. Latabururen 11 lan horiek kronologia bati jarraitzen diote, «gizakiaren eta sagarraren historia ezagutaraziz: Mesopotamian hasi eta Grezian barrena, azteka eta mayen kulturetatik pasatuta, Euskal Herrira iritsi bitarte». Astarbe sagardotegiko 15. belau-naldiko Hur Astarbek prestatu du sagardoaren historiara egokitutako ibilbide gastronomikoa, koadro bakoitzari pintxo bana lotuz. Biharko inaugurazio ekitaldian dastatu ahal izango dira horietako batzuk, liburutegiko ikasgelan eta gero: otsailaren 22an, Atxulondo ostatuan; martxoaren 1ean, Egarritabernan; eta, martxoaren 29an, Pasus jatetxean. Eskaintza gastronomikoa izango da, hiruna koadroren azalpena ematearekin batera. Parte hartu nahi duenak, 10 euro ordaindu behar ditu eta tabernetan jarritako zerrendetan eman beharko du izena.

SagarArte galeriaren helburu nagusia da, inguruko artista gazteei sostengua ematea, adierazpide gutxituen atari izanik. Horretarako mezenasgo bat eskainiko diete artistei, eta Astarbeko lan taldeak proiektua hautatzeko erabiliko dituen irizpideen berri eman du Arizkorretak: «Sagardo munduarentzat kultur adierazpide berria izatea hartuko dugu kontuan, baita susperraldian dagoen artista izatea, eta Euskal Herrikoa izatea ere». Behin aurtengoak bere ibilbidea egin da, ekainean aurkeztuko dute, ikasturte berrian, batetik bestera ibiliko den lana.



Mendia, Aranburu, Retegi eta Urbiet, Goiatz Bizirik Elkarteko kideak, Dendale tabernaren aurrean. E. MAIZ

Goiazko ostatua irekitzen duenak talde eragile baten babesa jasoko du

Goiatz Bizirik Elkartea sortu dute auzokideek, taberna irekita eduki nahi dutelako; otsailaren 3a da lehiaketara aurkezteko azken eguna

Eneritz Maiz Etxarri
Bidania-Goiatz

Herri txikietako ostatu askoren gertatzen den moduan, Goiazko ostatuak, beste behin ere, atek itxita ditu. Egoera horren aurrean goiazko auzotarrek gaiari heldu, eta Goiatz Bizirik Elkartea sortzea erabaki dute. Talde eragileko kide dira Leire Retegi, Olatz Aranburu, Cecilia Mendia eta Pili Urbiet. Dendale herriari bizia ematen dion estatutzat dute. Elkartzeko tokia da. Irekita eduki nahi dute, eta «ez elkarte baten moduan».

Tolomendik ostatuari begira eginga duen azterketa bat izan dute esku artean: «Orain arte, eudaletxearen eta adjudikatzailaren artean bakarrik izaten zen

harremana, eta azterketa horretan ikusi dugu herritarren laguntza eta babesa garrantzitsua izan daitezkeela, proiektua aurrera ateratzeko». Orduan, zerbait egin beharra zutela sentitu, eta eudaletxearekin harremanetan jarri ziren lizitazioa atzeratzea eskatuz. Bileran egin ostean, Bidania-Goiazko Udalak plegu proposamen bat aurkezteko eskatu zien. Tolomendiko azterketaz gain, Orixako Udalak herriko ostatuarekin egin duen lanketa ere ezagutu dute.

Talde motor bat martxan jarri eta plegu eredu osatu zuten, eta 32 etxebizitzatara zabaldu zuten ekarpenak jasotzeko. Guztira 82 pertsonaren proposamenak jaso zituzten. Horiek pleguetan txertatu zituzten, adostasunera iri-

tsiz. Hilaren 3az geroztik ustia-pena lehiaketara aterata dago, eta otsailaren 3a izango da interesatuek proposamenak aurkezteko azken eguna. Informazioa nahi duenak, eudaletxearekin harremanetan jarri beharko du.

Behin zabaltzean, herritarrak plazara gerturatzeko eta kanpotarrak erakartzeko, hainbat egitasmo antolatze konpromisoa hartu dute, betiere, hartzaileekin adostuz. Era berean, sare sozial bidez zabaltzeko ardura ere hartu dute. Beste berrikuntza jarraipen mahaia izango da, udalaren eta ustiatzaileekin batera osatuz, arazo eta egitasmoak koordinatzeko. Eta, ahal den neurrian, Tolomendik eskainiko duen ostalarientzako formakuntza jasotzea ere eskatuko dute.

GUTUNA

Enirio Aralarrekiko ardura

Abendu amaieran Enirio Aralarako mankomunitateak bere batzar orokorra deitu zuen, bereziki alkateak eta zinegotziak gonbidatuz eta baita abeltzainen sektorea ere, horrela erakunde publiko bat makurki erabiliz, sektore pribatu baten erabateko zerbitzura. Batzar horretan 2015-2019 legealdiaren balantzea eta egindako inbertsioak aztertu ziren, horien artean, eraikitako eta epaitegien diren bi legez kanpoko pista.

Legealdi honetan mankomunitateko arduradunek Aralar Natur Parkea izendatu aurreko ga-

raira eraman dute erakundea, abeltzainen sektorearen interesak eta nahiak soilik kontuan hartuz eta ondorioz beste sektoreen ekarpenak mespretxatuz: zientzialariak, konserbazionistak, mendizaleak...

Urte Berriak batzarrean ziren ordezkari politikoei arduraren zentzua ekarri izana espero dugu eta baita, Aralar, larreak baino askoz gehiago delakoaren konbentzimendua ere. Horretarako, *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala ikustea proposatzen diegu, Aralarako balioak ezaugu eta horren arabera ekin dezaten aurrerantz.

Jorge Garmendia (Aralar Bizirik) eta Edurne Huesa (Landarian)

‘Etxebizitza bizimodu’ hitzaldi zikloa, Ikaztegieta

E. Maiz Ikaztegieta

Ikaztegieta Gaste Taldeak, etxebizitzaren gaiarekin kezkatuta, *Etxebizitza bizimodu* hitzaldi zikloa antolatu du.

Lau saio izango dira, eta hainbat kasu hartu dituzte, hitzaldiak antolatzeko. Lehena bihar izango da, eta Zeraingo alokairu sozialaren eredu izango dute hizpide. Astebete beranduago, hilaren 25ean, Orixetako etxebizitza komunitarioaz ariko dira. Otsailaren 15eko saioa, berri, Tolosaldeko Antolakuntza Komunalari buruzkoa izango da. Bukatzeko, otsailaren 22rako, bileran irekia deitu du gazte taldeak eta, *Eta Ikaztegieta zer?* galdera egingo dute. Hitzaldi guztiak 19:00etan hasiko dira, eudaletxe-ko areto nagusian.

Modus Operandiren kontzerturako sarrerak, salgai

ALEGIA // Alegiako Gaztetxean eskainiko du kontzertua, Modus Operandi talde sortu berriak, hilaren 25ean. 22:30ean hasiko da kontzertua, eta sarrerak 5 euroan salgai jarri dituzte Iskifia eta Hilario Berri tabernetan. Aurretik, hilaren 18an, 22:30ean hasita, Mice era Pelax taldeek eskainiko dute kontzertua.

Udal eraikinen garbiketa zerbitzuan lan egiteko aukera

IKAZTEGIETA // Ikaztegieta Udalak, udal eraikinen garbiketako lehiaketan parte hartzeko aukera eskaini nahi die herritarrei. Interesatuek, bukatzearen kontratuaren ezaugarrien gaineko informazio guztia eudaletxean bertan eskuratzeko aukera izango dute.

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Hakatoia, kirolean jarrera oldarkorak alde batera uzteko

Haka dantza egingo dute Eskola Kirolean parte hartzen duten ehunka haurrek larunbatean, Trianguloan, kirolean izaten den indarkeriaren kontrako mezua sendotzeko

Imanol Garcia Landa Tolosa

Eskola Kirolean parte hartzen duten ehunka haur elkartuko dira, larunbatean, 11:00etan, Tolosako Trianguloa plazan egingo duten Hakatoian. Ekitaldian Haka izeneko dantza egingo dute, kirolean izaten den indarkeriaren kontrako mezua sendotu, eta kirolaz gozatzeko eskubidea aldarrikatzeko, modu positibo batean. Tolosako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eskola Kirola komunitateak antolatu dute egitasmoa, elkarlanean.

Zeelanda Berriko maori tri-buen guda dantza da haka. Ongietorri dantza bezala erabiltzen dute eta abegikortasunaren seinale da. Eskola Kirolean parte hartzen duten haurrak protagonista bihurtu nahi ditu egitasmoak eta, gogora ekarri, partidetara joaten direnei harmailetan goza dezaten eta epaile, entrenatzaile nahiz jokalarien aurkako jokabide oldarkor eta bortitzak alboratu ditzatela.

Larunbatean, Tolosaldeko Eskola Kiroleko kideez gain, bertan egongo dira Xabi Prieto eta Imanol Agirretxe Realeko jokalaria, Nerea Eizagirre Realeko jokalaria, Irene Caminos trial bike-eko txirrindularia eta *Goazen* telesaileko zenbait aktore ere.

Trianguloa plazan bertan egin dute Hakatoiarene aurkezpena. Patxi Amantegi Tolosako alkate ordeak nabarmendu duenez, egitasmoarekin «kirolaren balioak nagusitzea» nahi dute, eta «bestelako jarrerak alboratzea». Egitasmo horren atzean Eskola Kirola komunitatea dagoela ekarri du gogora Amantegik. 25 urte dira sortu zela, haur eta gazte txoak kirol mundura hurbiltzeko helburuarekin. Amantegik azaldu duenez, helburua arrakastatsu bete du: «Aukera eman die kirol eskaintza ezagutu, praktikatuz, eta ondoren gustukoenean sakontzeko».



Christian Fernandez, Patxi Amantegi eta Xabier Saizar, aurkezpenean. I.G.L.

Bide batez, Tolosako alkate ordeak azaldu du, bide horretan jarraituko dutela, eta irmoa dela programarekiko apustua: «Uste dugu, kirol aniztasuna sustatu eta balore hezitzaileak bultzatzea kirolaren etorkizuna bermatzeko dela. Zentzu horretan, eskerak eman nahi dizkiet, udal ordezkari naizen heinean, kirol elkarte eta ikastetxeei, beraiek baitira Eskola Kirolaren oinarria».

MILA HAUR INGURU

Xabier Saizarrek hitz egin du Eskola Kirolaren eskualdeko koordinatzaileen mahaiaren ordezkari gisa. Bat egiten dute egitasmoarekin: «Bere helburua oso garbia eta zuzena iruditzen zai-gulako, kirolak dituen balio on horiek transmititzen dituelako. Parte hartzaileak ikasleak berak izango diren arren, mezua ez da beraientzat bakarrik ez da mezua. Izan ere, mezua gehiago da helduontzako. Askotan kirolaren alde on guzti horiek estaliz, gauza txar asko ateratzen direa harmailetan eta hainbat kirol ekitalditan».

Saizarrek azaldu duenez, Eskola Kirolaren mahaiaren, askotan, zalantzan jartzen dute herri-tarrek ezagutzen ote duten, Eskola Kirolaren helburua. «Eskola adinean daudenak ahalik eta kirol aukerarik zabalea izatea, denontzako kirola izatea, kirol pilo

bat probatzea, gero etorkizunean kirola edo jarduera fisikoa egiten jarrai dezaten. Helburua ez da errendimendu handiko kirolariak ateratzea».

Bestalde, hain eremu zabala zenbakitan jarri nahi izan du Saizarrek. Tolosaldea bailaran mila haur inguru aritzen dira. Horiek guztiak hezten dabilta ehun begirale inguru, eta hamabi koordinatzaile. Horrez gain, udaletako langileak, klubetako kideak eta aldundiko langileak aritzen direla azaldu du Saizarrek: «Horrek erakusten du bere bolumena».

Saizarrek gogora ekarri du, aurtengo denboraldiaren hasieratik, partiden hasieran zein bukaeran martxan jarri dutela, Eskola Kiroleko kide guztien artean elkarri eskua emateko praktika, indarkeriaren kontrako mezua zabaltzeko egitasmoarekin bat eginez.

Christian Fernandez Tolosako Kirol zinegotziak ere hitz egin du aurkezpenean, eta Eskola Kirola «balore positiboak, errespetuzkoak, laguntasunezkoak eta indarkeriaren aurkakoak transmititzeko kanal oso garrantzitsua» dela esan du, «gizartearen kontzientziazioa lortzeko». Balore horiek zabaltzeko haur, guraso eta herritar guztiak gonbidatu ditu larunbateko ekitaldira, «gizarteari ozenki esateko, umeei nahi dutena kirolaz gozatzea dela, indarkeriarik gabe».

Ametsetako debuta



Aulkitik

Nahia Aparicio

Tolosa CF Euskal Liga

Aurreko asteko astelehenean 15 urte beten nituen eta, ondorioz, albiste on bat eman zidaten ostegunean: Euskal Ligakoekin joango nintzen, asteburuan, Elorrioren aurkako partidara. Ostiralean azken horiekin entrenatu nuen eta, nahiz eta hasieran urduri egon, denbora pasa ahala gusturago sentitzen hasi nintzen. Ondo onartu ninduten, neska ja-

torrak dira-eta! Urduritasuna gauean agertu zen berriro. Birritan esnatu nintzen, partida bu-ruan nuela. Ondoren, ondo bazkaldu eta indarrak hartu eta gero, Usabalera abiatu nintzen, ilusioz beteriko motxila hartuta.

Partidari buruz ezer gutxi: bi orkatila bihurritu, bi debut, hiru gol, Eiderren pare, Zuriren gola eta Gariren gol baliogabetua. Nire ametsetako debuta izan dela esan dezaket. Lore eta biok lehen partida gauen Euskal Ligan. Gustura sentitu nintzen egindako lanarekin, eta baita taldearekin ere. Orain lanean jarraituko dut, horrelako aukera gehiago bizi ahal izateko. Bukatzeko: 0-3ko emaitzarekin amaitu zen partida.

Larunbatean partida garrantzitsua dute Usabalen, 17:30ean, Goierri-Gorri taldearen aurka. Bertan izango naiz animatzen. Eskerrik asko neskak, denagatik! Talde zoragarria zarete! Aupa Tolosako neskak!

Beste behin



Aulkitik

Edurne Martinez

Lauburu Ibarra

rra dute, gure partida epaitzen. Beste behin, epaile hasiberria gurekin bataiatzeko erabakia hartzeak, lehen lerrora dakar, aurrez aurre esatera ahalegintzen ez direna: gurekin akats egiteak zilegitasun handiagoa duela, maila bereko gizonekin hanka sartzeak baino.

Probarako garabiltzate behin eta berriz, behin eta berriz... Eta ez. Pare pare emakumeak gaude zelaian, eta jokoaren balantza golek baino, erabaki matxistek desorekatzea, injustua da guztiz. Adierazi ez duen falta, area kanpoan eskuekin egindako geldiketa, atera ez duen txartela, alboko sakea aurkariaren alde berak bota duenean, berriz adierazi gabeko falta, barkatutako penaltia... Eta ez, denak ez du balio.

Jokoa jolas egiten saiatzen gara. Baina jolasaren funtsa errespetua da. Eta emakume izate hutsagatik arauak lausotzea, ez ikusiarena egitea, ez da errespetuzkoa. Eta errespetua eskatzen dugu, beste behin.

Futbolariak bainoago, bekadunak izan gara taldean; praktikaldiak egiten ari ziren ikasleak eta ikasle ohiak. Baina, bereziki, futbolariak baino, emakumeak gara.

Futbolari emakumeak garen arren, sarritan, gure gainetik dagoen hierarkia maskulinoan, ahaztu egiten dira izenondoak, alboan daraman izenarekin.

Zergatik diodan hori? Joan den ostiralean, beste behin, ikas-te prozesuan dagoen epailea ja-



EGUNA, 20XXKO XXXAK XX
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

OSTEGUNA 17

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Euskal jaia antolatzeke bile-
ra, 18:00etan, udaletxean.

Berastegi. San Anton eguneko
meza, ermitan, 10:00etan. Ondoren
hamaiketako egingo dute.

Ibarra. Kontsumoari buruzko hitzal-
dia, 16:30ean, Bizi Nahi elkartearen.

Ibarra. Erakusketa: *Ibarrako argazki
historikoak*. J. J. Arin, kultur etxean.

Tolosa. Laskorain ikastolan hitzaldia,
18:00etan: *Haur zoriontsuak ala au-
tonomo eta seguruak?*. Sakramen-
tinoetako eraikinean.

Tolosa. *El ultimo vals* filma, Leidor
antzekian. 19:15 eta 21:45.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualde-
ko berriak, Iker Ibarluzearekin egu-
raldia, Joanes Karrera arkeologoaren
tartea, Oskar Tenarekin artearen
txokoa eta Mikel Ozaita *Kale Kantoi-
tik* eta.

11:00-12:00. Eutsi goiari. Kirolak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

15:00. Playback Ataria. Adrianna
Gaultier Djaren musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00. (H)ari naizela. Imanol Arto-
lak, *Felixek*, gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Kantari Donostia 1. saioa

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Ikusi irratia

23:00. Bermistoria 2018

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Bengoetxea Aiestaran, Edurne.
Kale Nagusia, 7.

943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa.

Azpiroz Galarza, Lourdes.

Amarotz auzoa, 9

943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Eguraldi kaskarra.

Egun osoan, ipar-mende-
baldeko haize biziarekin, ho-
dei ugari pilatuko da, eta euria izango
dugu. Goizean eta eguerdian euri
gehiago izango dugu, eta tarteka
gogotik botako du. Arratsalde parte-
an zaparradak ahulagoak eta tarte-
katuagoak izango dira, eta gau par-
terako ia ateri geratuko da. Tenpera-
turak behera egingo du, koska polita
gainera, eta maximoak 7-9° bitartera
baino ez dira iritsiko. Horrekin, elur
mailak behera egingo du, eta 1.000
eta 1.100 metro bitartean kokatuko
da, goizean. Arratsaldean, berriz, elur
maila 700-800 metrora jaitsiko da.



Bihar. Giro lasaia, baina ho-
tza. Haizeak hego ukitu bat
hartuko du eta giro lasaia

nagusituko da, nahiz eta zaparra-
daxkaren bat izan. Goizean eta
eguerdi partean izango da hodeitza-
rik trinkoena, eta euri pixka bat egi-
teko aukera ere izango da. Arratsal-
dean ateri egongo da, eta ostartetxo
batzuk irekiko dira. Tenperaturak
eguneko erdiko orduetan joko du
goia, 7 eta 9 gradu artean. Egiten
duen euri apurra elurretan izango da,
1000 metrotik gora.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzen egunkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko
ezteiak, ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.info

San Esteban 20
Tolosa

Greba feminista hasi da egosten, Tolosaldean

Euskal Herriko Mugimendu Feministak egindako deialdira batu da Tolosaldeko Asanblada Feminista ere; hurrengo bilera urtarilaren 30ean egingo dute, Tolosako kultur etxean



Lehen erabakiak zehaztu zituzten astearteko bilkuran. I. URKIZU

Itzea Urkizu Arsuaga

Bigarrenenez, greba feministak hartuko du Tolosaldea, martxoaren 8an. Euskal Herriko Mugimendu Feministak iragarri zuen, aurtengoa 24 orduko greba izango dela, eta asmo horri helduta ekin ziotenn, joan den asteartean, greba antolatzeari.

Arrakastatsua izan zen 2018ko martxoaren 8an, eta emakumeen plantoa bide beretik joatea da, aurtan ere, Tolosaldeko Asanblada Feministaren nahia. Horrela, ideia zaparrada eta proposamenen bilkura izan zen, eskualdeko emakumeek egindako lehenengoa.

Eskualde mailako mobilizazio batek hartuko du eguna, baina, oraindik, egitaraua prestatzen dihardute. Horretrako bigarren hitzordua urtarilaren 30ean izango da, 19:00etan, Tolosako kultur etxean.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak atzo egin zuen grebaren lehen aurkezpena, Gasteizen, eta, nabarmendu, bizitza erdigunean jartzea izango dela aurtengo grebaren helburua.

tolosaldeko atariak MARKETIN ETA SUSTAPEN ARDURADUNA

ESKATZEN DA:

- Marketin arloko ezagutzak izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Sustapen lanetan eskarmentua edukitzea.
- Diseinu edo bideogintza alorra kontrolatzea.
- Sare sozialak erabiltzen jakitea.
- Bulegoko programa informatikoak ezagutzea.

ESKAINTZEN DA:

- Kontratu iraunkorra.
- Lantokia Tolosan.

Erreferentzia: MART-SUST-2019

Interesa duenak **Curriculum Vitae zehatza** bidali Tolosaldeko Atariara [San Esteban, 20. 20400 Tolosa] edo tkt@ataria.eus posta elektronikora, erreferentzia zehaztuz. **2019ko urtarilaren 20a baino lehen.**